



## GIPUZKOAKO EUZKO GAZTEDIREN ADIERAZPENA GENERO-BERDINTASUNA, ETORKIZUNEN GILTZA

Hamarkadetan zehar, adin, identitate, arraza eta nazionalitate desberdineko lagunen borroka eta elkartasunari esker sortutako mugimendua da emakumeen eskubideen aldekoa. Urte guzti hauetan emandako aurrerapausoak garrantzitsuak izan badira ere, jakin badakigu, tamalez, oraindik ere bide luzea dugula aurretik emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkor eta benetakoa lortu arte.

Izan ere, ugariak dira emakumeek gaur egun, emakume izate hutsagatik, pairatzen ditugun oztopo, arrisku eta jazarpenak arlo pertsonal, profesional edota sozialean. Datuek argi uzten dute egoera honen gordintasuna:

Lan-arloan:

- Emakume eta gizonen arteko **soldata arrakala**.
- **Lanaldi partziala** hartzen duten langileetatik **%83** emakumeak dira.
- **Seme-alabak zaintzeko baimenei** dagokienez, **%95ak** emakumeek eskatzen dituzte.
- **Industria-sektorean** emakumezko diren langileak **%20** baino ez dira.
- Enpresen **%15ek bakarrik dituzte emakumeak presidente edo zuzendaritza karguetan**.
- Emakumeek **jazarpen sexuala lan-arloan sufritu** arren, oraindik ere ezkutuko gaia da.

Etxeko lanak eta familia:

- Emakumeek egunero gizonak baino 2,5 ordu gehiago eskaintzen dizkiote **etxeko lanei**, **seme-alaben zaintza** barne. Gizonak, aldiz, ordubete gehiago dute egunero aisialdirako.

Emakumeen aurkako indarkeria:

- Nazio Batuen datuen arabera, mundu mailan, emakumeen **%35ak indarkeria fisiko edota sexuala** pairatu du gizonen eskutik.



- 2017.urtean, Hego Euskadin, emakumeen **5.853 salaketa** jaso ziren (egunero 16), gehienak bikotekide edo bikotekide ohiaren aurka ezarritakoak.
- 2018. urtean, Hego Euskadin, **4** emakume **erail** zituzten beren bikotekide edo bikotekide ohiek. Estatu mailan, 2018an, **47** hildako; eta 2019ko lehenengo aste hauetan, dagoeneko **3** emakume erail dituzte.

Datu horiek dira gaur egun bizi dugun egoera bidegabearen isla. Halaber, badira gure gizartean sexuen arteko desoreka ukatzen dutenak, horien ustez berdintasuna aspaldi lortu omen baitzen. Kasu askotan, ezjakintasunaren eta jasotako eragin matxisten ondorioz sortutako pentsaera da; beste batzuetan, ordea, helburu ideologiko eta sozial jakinaren bila ari diren estrategia politikoez bultzatutakoa.

Horien aurrean, guk, EGI Gipuzkoako gazteok, gure gizartean errotuta dagoen eredu patriarkal eta matxistaren aurka agertu eta gure izaera feminista aldarrikatu nahi dugu. Feministak gara, besterik gabe, emakume eta gizonen arteko berdintasunean sinesten dugulako. Feministak gara historian zehar emakumeek, bidegabekeria latzenei aurre eginez, berdintasunaren bidean egin dituztenak txalotu eta guk ere bide horri ekiteko konpromisoa hartzen dugulako. Feministak gara, finean, humanistak garelako eta gure proiektu politikoan emakumearen aurkako diskriminazioak ez duelako lekurik.

Ezinbestekoa dugu, beraz, **genero-ikuspegia** bizitzako arlo guztietan aplikatu eta berdintasunaren arloan planteatzen diren erronkei aurre egitea:

1. Emakumea, pertsona den heinean, **giza eskubideen jabe** dela garbi izan behar dugu, eta horiez gozatzeko eskubidea duela gizonarekin berdintasunean.
2. Berdintasuna **giza garapen iraunkorraren bidean apustu estrategikoa** dela ulertu behar dugu, gure gizartearentzat onura sozial eta ekonomiko handiak ekarriko dituen.



3. **Erantzunkidetasuna** bultzatu, bereziki zaintza ardurak gizon eta emakumeen artean elkarbanatuz. Lana eta familia bateragarri egitea ez da emakumearen ardura soilik, gizonaren inplikazioa eragiteko neurriak hartu behar ditugu.
4. **Hezkidetza** ekimen eta programak zabaldu, gure ume eta gazteak berdintasunaren kulturaren hezi daitezten. Era berean, **komunikabideei**, auzi honetan duten ardura bere egin eta tamalez ohikoak diren mezu sexistak baztertu eta berdintasunaren aldekoak zabaltzeko eskatu behar diegu.
5. **Emakumearen aurkako indarkeriarik gabeko** gizartea eraiki. Genero-indarkeria ezberdintasunaren adierazgarri basatiena da, gizarte matxistak sortutako gaitza eta horren erakusgarri. Hura errotik kentzeko lege, instituzio eta gizarte osoaren inplikazioa da beharrezkoa eta, bereziki, gizonena. Aski da. Indarkeriaren aurrean tolerantziarik ez.
6. Berdintasuna **guztion ardura** dela barneratu eta gure egunerokotasunean, 24 orduz, jarrera eta ekintza berdinzaleak praktikan jartzea.

Ibarretxe Lehendakariaren hitzak gogora ekarriz: "Este país lo tenemos que construir entre mujeres y hombres. Juntos. Elkarrekin. No lo olvidéis. Dos alas. Las personas somos como los pájaros, tenemos dos alas. El ala femenina y el ala masculina. ¡Con un ala, los hombres por delante y las mujeres tapadas, se puede vivir, pero no se puede volar! ¡Hay que volar!"

Aurretik bide luzea dugun arren, elkarrekin hegan egin nahi dugu. Berdintasuna gaurko eta etorkizuneko giltza delako. Berdintasunarekin eta giza eskubideekin konpromiso sakona dugulako. Emakumeekin. Gizonekin. Gure herriarekin.

Gora emakume eta gizonen arteko berdintasuna!  
Gora Euzko Gaztedi!  
Gora Euskadi askatuta!

Beasainen, 2019ko urtarrilaren 26ean